

Lehengo andramaixak

Ondarroako udako jaietan aldaketa ugari izan da denborak eraginda


Patxi Etxaburu Ondarroako Historia Zaleak taldeko partaide da. Talde honen helburuak bi dira: batetik, Ondarroako historiarekiko interesa suspertzea; bestetik, herriko historia aztertzea eta idaztera bultzatzea, eta idatziak argitaratzen laguntzea.

Ildo horretatik, Augustin Zubikarai egindako lanarekin jarraituz, Ondarroa urtekaria kaleratu zuten. Ondarroako Historia Zaleen taldearen beste jomuga bat Herriko Artxibo Historikoa berreskuratzea da.

Patxi Etxaburuk dioenez, «ni arrantzale bat besterik ez naiz izan, baina historia zalea beti izan naiz, asko irakurri dut». Eta lehengo jaiei buruz gogoratzen duena azaldu digu Etxaburuk.

Andramaixak hiru egun izan ohi ziren, abuztuaren 14tik 16ra arte. Abuztuaren 17an arrantzaleak itsasora joaten ziren. Geroago, 1957an Juanito Balentziagak eta bere koadrilak Arrantzale Eguna sortu zuten. Lehen, andramaxezen gain, San Pedro, Santa Klara eta Arrate jaiak izaten ziren.

Patxi Etxaburuk azaldu digunez, «andramaixak bezperan hasten ziren, txalupako lanak egin ondoren. Iluntzean, salbera joaten ginen, Antiguara. Jendek bete-beteta egoten zen. Ondoren, kalejira egiten zen, eta, gauean, Musika Banda



Esku pilota partidak garrantzitsuak ziren jaietan, bertara gizonetakoak eta sarrera ordaindu ahal zutenak joaten ziren.

egoten zen». Giro itzela egon ohi zen herrian, ordurako arrantzale guztiak etorrira egoten baitziren.

Plazan giro itzela

Andra Mari egunean, goizean diana izaten zen. Goizean goiz txistulariak ibiltzen ziren. Geroago, erraldoiak eta buruhandiak egoten ziren. Ondoren, meza nagusia izan ohi zen. Etxaburuk dioenez, «Andra

Mari egunean denok mezara joaten ginen. Guztiok trajea janzten genuen, nahiz eta kristoren beroa egin. Umeok nagusien jaka edo antzekoa janzten genuen».

Eguerdian, mezaren ondoren, jendea plazara joan ohi zen, giro itzela izaten zen. Herriko Musika Bandak kontzertua eskaintzen zuen. Gaueko emanaldirako kanpotik ekartzen ziren musika bandak.

Bestalde, jaietan esku pilota

partidak egoten ziren. «Euskal Herriko pilotari onenak etortzen ziren. Akarregi, Gallastegi, Atano III.a eta halakoak izaten ziren. Esku pilota partidarik ez bazen egongo, akabo andramaixak», gogoratu du Patxi Etxaburuk. San Roke egunean ere izan ohi ziren esku pilota partidak.

Etxaburuk dioenez, «gehienbat gizonak eta sarrera ordaindu ahal zutenak joaten ziren esku pilota partidak ikustera. Bes-

PATXI ETXABURU

Historia Zaleak taldeko kidea

«Andra Mari egunean trajea jantzi eta denok mezara joaten ginen»

teok, gazteak ginenok, utziz gero partida ia bukatzeaz zegoela sartzen ginen». Kanpoko jendea etorri ohi zen partida hauek ikustera.

Garai hartan, Aurrera Kirol Elkartek egungo Gizarte tabernaren gainean zuen taberna. Behean, kafea, eta goian, terraza zuen. Jende asko egoten zen goian. Alboan, beste taberna bat zegoen: Frontoi taberna. Egun, Artibai tabernatik hasi eta Gotzon arrandegiraino bat egiten zuen. Artibain taberna zegoen, eta gorago, kafetegia. Taberna honek pianoa ere bazuen, inoiz Izetak ere jo zuena.

Estropadak ere garrantzitsuak izaten ziren. Bateletan eta badia barruan izaten ziren, Vegaren aurrean. Estropadetan, txalupa txikiak eta handiagoak atera, eta jendea hartzen zuten; jendek gainezka egoten ziren. Itsasora joan ohi ziren buelta bat ematera, estropadak hasi aurretik edo bukatu ondoren.

Xirula
eta
Gizarte
tabernak
Jaietan giro jatorra!
ONDARROA

Artabide 12
tel./94 683 1802
fax/94 61 34391
Ondarroa Bizkaia

Lagunkor
aholkularitza
Amaia Agirre Egia

Ur jausi
ITURGINTZA

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa

Iñaki Deuna 29 B. behea
48700 Ondarroa Bizkaia
Tfnoa/Fax 94 683 29 96

TXURRUKA
ILEAPAINDEGIA
Erribera, 18 **ONDARROA**

IÑAKI Okindegia
ONDO PASA JAIK
Artabide, 12 - Tel.: 94 683 01 29 - **ONDARROA**

ONAIKIZ
Ileapaindegia
Iñaki deuna, 39
Tfnoa.: 94 683 34 48
48700 ONDARROA

Zenbat Gara elkartea

Kafe ANIZKIA
ONDARROA

Iparragirre 10
48700 ONDARROA
Euskal Herria
Tel: 94 683 41 41
Fax: 94 683 41 42
www.kafeantzokia.com

Zenbat Gara elkartea

ARRIGORRI
ITSAS OSTATUA

Arrigorri 3
Hondartza gainean
48700 ONDARROA • Bizkaia
Euskal Herria
Tel: 94 613 40 45 • 605 711 684
Fax: 94 683 33 07
www.arrigorri.net